

LEHENDAKARITZARAKO HAUTESKUNDEETAN ABDELAZIZ BOUTEFLIKA BAIZIK EZ DA AURKEZTUKO, ARMADAK SUSTENGATZEN DUENA

Gaurko bozak kolokan daude Algerian zazpi hautagaietatik sei erretiratu direlako

■ Sei zerrendaburuek

«boto iruzurra» argudiatu dute gaur egitekoak diren hauteskundeak boikotatzeko

■ Kargua utziko duen presidenteak,

Liamine Zeroualek, beraiekin biltzeari muzin egin eta gero hartu dute erabakia

■ Algeriako Barne Ministerioak,

aldiz, «arriskutsutzat» eta «gezurrezkotzat» jo ditu hautagaien salaketak

Agentziak / Aljer

GAUR Algerian egiteko diren Lehendakaritzarako bozak kolokan daude eta haien sinesgarritasuna hutsaren hurrena da, zazpi hautagaie-tatik seik uko egin baitiote prozesu horretan parte hartzeari.

Erabakia atzo bertan hartu zuten zerrendaburuek, hauteskunde bezperan, eta kinka are larriagoan utzi du herri horren giro politiko nahasia. Erretiratzearen ondorioz, Abdelaziz Bouteflika baino ez da aurkeztuko hauteskundeetara, oposizioaren arabera Armadak sustengatzen duen hautagaia.

Hautagaiak boto iruzurra izango den susmoa salatu izan dute kanpaina osoan, eta boteretik berdintasun traturik jaso ez izana gaitzetsi. Atzo bertan elkarrizketa eskatu zioten bozen ostean kargua utziko duen presidentek Liamine Zerouali kezka horiek agertarazteko, baina Zeroualek ez zion nahikari horri erreparatu.

Lehendakariaren ezezkoaren ondoren, sei hautagaiak Indar Sozialisten Frontearen (FFS) egoitzan elkartu ziren eta hauteskundeetan parte ez hartzea deliberatu. Zerrendaburuek hauteskundeak «iruzurrez eta irregulartasunez» josita daudela argudiatu zuten.

Erretiratu diren politikariak hauek dira: Mokdad Sifi eta Mulud Hamroux ministro ohiak, Hocin Ait-Ahmed buruzagi sozialista, Ahmed Taleb Ibrahim Aljeriako Atzerri ministro ohiak, Jucef Khatib militar ohiak eta Abdala Jabala politikari islamikoa. «Eutsi egiten diogu aspal-dian esan genuenari. Presidente eta Indar Armatuaren Estatu Nagusiaren buruak ez du benetan errespetatu hauteskunde libre eta garbiak egiteko hartu zuen konpromisoa», azaldu zuten hautagaiak hedabideei banatutako agiri batean.

Idazkian esaten denez,



LAURENT REBOURS / AP

Hautagaitza baztertu duten presidentegaiak eta haien kanpaina zuzendariak, atzo, erabakiaren berri ematen.



Aljeriako botereak «ukatu egiten du herritarrek euren etorkizuna erabakitzeko duten eskubidea».

«Aho batez erabaki dugu hauteskundeetatik erretiratzea, eta boz hauen emaitzei ez diegu zilegitasunik onartuko. Hori dela eta, dei egiten diegu geure ordezkariak hautesle eta begirale batzordeetatik irten daitezen», segitzen du agiriak.

Aljeriako Barne Ministerio-

militarrek eta poliziek botoa eman dute dagoeneko eta bozketa horren bidez iruzurra egiteko aukera profitatu du Gobernuak.

Sei zerrendaburuek esan zuten militarrek sustengatzen duten gobernuak Abdelaziz Bouteflikaren aldeko jokabidea erakutsi duela kanpainen.

Bouteflika ministro izan zen Houari Boumedienne presidente ohiarekin 1960-1970. urteetan, eta militarren sustengua du egun. Armadak rol berezi du Algerian eta haren ezkutuko eraginak pisu handia izan du bertako politikan, herri horrek Frantziatik independentzia lortu zuenetik. Militarren eta gizarte zibilaren arteko erlazioek elkarrenganako mesfidantza erakutsi dute beti.

Armadaren itzala, gainera, ekonomiaren esparrura ere zabaldu da, eta ustelkeria kasuak gero eta gehiago izan dira.

Aljeriarrak egoera horren jakitun dira eta ironiaz kritikatu izan dute. «Estatu bakoitzak Armada dauka, baina Algerian Armadak estatubat dauka».

Hauteskundeak egin egingo direla ziurtatu du Zeroualek

OPOSIZIOKO sei presidentegaiak hautagaitzak baztertuta, Gobernuaren lehendakari ofiziala bakarrik geratu da gaur egingo diren hauteskundeetan. Herritarrek horri soilik eman ahalko diote botoa, beraz.

Liamine Zeroual lehendakariak mezu bat irakurri zion nazioari bart gauean telebistan eta irratiari. Hauteskundeak egin egingo direla azpimarratu zuen, «hauteskunde prozesua atzerazineko urratsean» zegoelako.

Gaurko hauteskundeetan izango diren botoen zenbaketa bermatzeko gai badela esan zuen Zeroualek, eta sinesgarritasuna kendu zien iruzurra izango dela esanez oposizio buruzagiek egindako salaketak.

Oposizioko presidentegaien erretiratzeak ondorioak izango ditu gizartean eta estatuan. Arlo juridikoari dagokionez, horrelakorik ez da inoiz gertatu Algerian. Herrialde horretako legediak hautagaitzari eustera behartzen du presidentegaiak —legez hautagai ezin izatea da salbuespen bakarra—. Hau da, hautagaitza baztertu duten sei hautagaiak legea hautsi izanagatik epaitzea litekeena da.

Bigarren ondorioa da Bouteflikaren legitimitatea Aljeriako lehendakari gisa zalantzan geratuko dela, hauteskundeak irabaziko dituela ziurra delako.

Zeroualen irudia kalte-tuta geratuko da gainera: hauteskundeak antolatu zituen «gardentasun eta oreka» gisa aurkeztu zituen.